

Udal-Biztanleriaren eguneratzea

Emaitzen analisia

Aurkibidea

HURBILKETA HISTORIKOA	2
EUSKAL Aeko BIZTANLEAK	4
UDALERRIETAKO BIZTANLEAK	8
Udalerri handiak	11
Udalerri ertainak	11
Bitarteko udalerriak	12
Udalerri txikiak	14

UDAL-BIZTANLERIAREN EGUNERATZEA

Udal-Biztanleriaren Eguneratzeak urtean behingo jarraipena ematen die zentsuek emandako biztanleria-zifrei eta, 1996a arte, errolda-berriztapenek eskaintzen zituzten biztanle-kopuruari. Horrez gain, demografia-gertakarien (berezko mugimenduen eta migrazioen) intentsitateak Euskal Autonomia Erkidegoko eremu espazialen (lurralde historikoak, eskualdeak, udalerrriak) zenbakizko aldakuntzei nolako ekarpena egin dien konparatzea ahalbidetzen du.


Asmoa, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek errolda arteko aldietan dituzten zuzenbideko biztanleriari buruzko datu eguneratuak urtero ezagutaraztea da, betiere urte bakoitzeko abenduaren 31ko erreferentzia-datarekin. Edukiari dagokionez, web gunek biztanle-kopuruak eta biztanleria-aldakuntzaren osagaien xehekapena eskaintzen ditu, lurralde historikoa, eskualdeka eta udalerrrika. Era berean, lurralde-mailako sexu eta adinkako biztanleria-egitura aurki daiteke.

Analisi hau behar bezala ulertu ahal izateko, kontuan izan behar da bertan aztertzen ditugun biztanle-kopuruaren aldaketak lurralde-eremuen taldekatze-mailaren arabera antolatu ditugula, maila handienetik txikienera: Euskal AE, lurralde historikoak, eskualdeak, eta, azkenik, udalerrriak, betiere tamainaren arabera taldekatuta.

Lehenik hurbilketa historiko txiki bat egin dugu 1981, 1986, 1991 eta 1996ko zentsuen eta errolda-berriztapenen bidez. Aztergai den denbora-eremuak bi erreferentzia-aldi hartzen ditu bere baitan: batetik, 1996ko maiatzaren 1etik 2004ko abenduaren 31ko erreferentzia-data duen udal-biztanleriaren eguneratzea arte doan aldia dugu; bestetik, **Eustatek** argitaratutako azken biztanleria-eguneratzetik lortutako urteko aldakuntzaren aldia dugu.

HURBILKETA HISTORIKOA


Biztanle-kopuru nagusien bilakaerak erakusten duenez, motelagoa da 80ko hamarkadaren hasieran gure erkidegoan hasi zen biztanle-kopuruaren beheranzko joera. Ildo horretan, zeinuz aldatu da Euskal AEko zentsuen arteko hazkunde-tasaren azken aldia (biztanle-kopuruaren urteko batez besteko aldaketa portzentajezkoa adierazten du, azkeneko errolda-berriztapenetik). Aztertu ditugun errolda arteko lehen hiru aldietan (1981-1986, 1986-1991 eta 1991-1996), tasak, aldizka, %0,1en eta %0,3ren artean egon dira. Eta errolda arteko azken aldian, %0,09ra iritsi da tasa hori, 1996ko maiatzaren 1aren eta 2004ko abenduaren artean.

1. Errolden arteko hazkunde-tasaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (%)


Fuente: Eustat

1981etik 2004ko bukaerara, Euskal AEk 26.963 lagun galdu ditu, hau da, biztanle-kopuruaren %1,3. Lurralde historikoen artean, Araban baino ez da igo etengabe biztanle-kopurua, zeren biztanleak gehitzea lortu baitu aztergai ditugun zentsu arteko aldi guztietan, eta 40.239 pertsona irabazi ditu 1981aren eta 2004ko abenduaren artean, hau da, %15,6ko gehikuntza izan da. Bizkaia eta Gipuzkoak, aldiz, biztanleak galdu dituzte aldi horietan. Bi horien artean, Bizkaia nabarmentzen da, 51.453 laguneko galera izan baitu, hau da, guztizko biztanleriaren %4,3. Gipuzkoak, berriz, 15.751 biztanle galdu ditu urte horietan, hau da, biztanle-kopuruaren %2,3 inguru.

Euskal AEko biztanleriaren egiturari dagokionez, adin-talde nagusien araberako banaketaren bilakaerak jaitsiera nabarmena eta etengabea izan du adinik gazteenetan; adinik zaharretan, aldiz, igoera izan du. 1981 eta 2004 artean, 0 eta 19 urte arteko gure erkidegoko biztanleria %34tik %17ra jaitsi da; urte horietan, bestalde, 65 urte eta gehiagoko biztanleria bikoiztu egin da, eta %9tik ia %18ra igo da.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren egituraren bilakaera, adin-tarteen arabera (%)


Iturria: Eustat

EUSKAL AEkO BIZTANLEAK

1996ko maiatzaren 1eko azkeneko errolda-berriztapenaren arabera, Euskal AEk 2.098.055 biztanle zituen. Hasierako kopuru hori zuzendu egiten da, errolden arteko aldi egiten diren aldakuntzen bidez. Aldakuntza horiek, alde batetik, errolda-berriztapen guztiei dagozkien erroreek eragiten dituzte (eskuarki, azpibalioespena), bai eta ondorengo errolda-kudeaketek ere. Ildo horretan, 2004ko abenduaren 31 arte 35.006 ez-erroldatze eta 21.051 berrerroldatze eta behar ez bezalako sarrera zenbatu dira; beraz, berriztapen hori egin zenean, benetako biztanle-kopurua 2.112.010 biztanlera iritsiko litzateke.

Zuzendutako kopuru horretan oinarrituz egiten da, hain zuzen, biztanleriaren eguneratzea; horretarako, demografia-osagaiak hartzen dira kontuan: hazkunde begetatiboa eta migrazio-saldoa. 96/5/1eko errolda-berriztapenetik 04/12/31ko biztanleriaren eguneratzerara, Euskal AEk 16.791 biztanle irabazi ditu, eta orain 2.128.801 biztanle ditu. Errolda arteko aldi horretan, jaiotzen eta heriotzen arteko aldeak eragindako biztanleria-aldakuntzak zeinu negatiboa du eta %23koa da, -6.903 biztanlekoa hain zuzen ere. Helbide-aldaketengatik gertatzen diren sarreren eta irteeren arteko saldoa, berriz, positiboa da eta gainerako %77koa da, hau da, 23.694 pertsonetako.


Errolda arteko azken aldiak, 1996ko maiatzaren 1etik 2004ko abenduaren 31 arte, Euskal AEkO biztanleriak gora egin du %0,8. Araban %5,7ko gorakada egon da, eta beste bi lurraldeetako biztanleria ia bere horretan geratu da: Gipuzkoan %0,4 igo da eta Bizkaia %0,2ko galera izan du biztanlerian.

Euskal AEkO biztanleriaren lurralde-banaketari dagokionez, 2004ko abenduaren 31n, Bizkaia biltzen ditu erkidegoko guztizko biztanleen erdiak baino gehixeago, %54; Gipuzkoan, berriz, %32 kokatzen da eta Araban gainerako %14.

Euskal AEkO zuzenbidezko guztizko biztanleetatik, eguneratze honen arabera eta sexukako banaketari jarraiki, 1.040.746 gizonezkoak dira, eta 1.088.055 emakumezkoak. Emetasun-erlazioa, beraz, 1,05ekoa da, hau da, gure erkidegoan, 100 gizonezko bakoitzeko 105 emakumezko daude. Bizkaiko lurralde historikoak 100 gizonezko bakoitzeko 106 emakumezko ditu; Gipuzkoak 100 gizonezko bakoitzeko 104 emakumezko ditu; eta Arabak, 100 gizonezko bakoitzeko 101 emakumezko.


65 urte edo gehiago dituztenen artean, eta bizi-itxaropena handiagoa dutenez, askoz handiagoa da emakumezkoen pisua, %21; gizonezkoena, berriz, %15 baino ez.

Gure erkidegoko biztanleriaren piramideak, 2004ren amaieran, adierazten du biztanleriaren %17 0 eta 19 urte artean dagoela; %65 20 eta 64 urte artean; eta %18 65 urte eta gehiagokoa dela. Arabako biztanleriaren egitura, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa ez bezala, ez dago hain zahartuta, zere biztanleria zaharraren ehunekoa erkidegoko batez bestekoa baino %2 txikiagoa baita.

3. Biztanleriaren egitura, adin-tarteen, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (%).


Iturria: Eustat

Hala ere, urte arteko aldakuntza hartzen badugu kontuan, 2004. urtean finkatu egiten da 2000. urtean hasitako goranzko joera. Udal-biztanleriaren azken eguneratzetik (2003ko abendua), Euskal AEn 9.934 biztanle gehiago daude, %0,5 gehiago, balantze begetatiboaren eta migrazio-balantzearen arteko baturak emaitza positiboa ematen baitu. Euskal AEko ia hazkunde demografiko osoa migrazio-saldoari dagokio.

4. Biztanleriaren aldakuntza-osagaien bilakaera



Iturria: Eustat

Urteko aldakuntza positiboa izan da hiru lurraldeetan, baina badira zenbait ezberdintasun, aldakuntzaren osaerari dagokionez batik bat. Araba izan da biztanle-gehikuntzarik handiena izan duen lurralde historikoa, 3.072 pertsona gehiago irabazi baititu (%1,2). Bizkaiak 4.888 biztanle irabazi

ditu (%0,4) eta Gipuzkoan biztanleria %0,2 hazi da, 1.343 pertsonekin. Euskal A Eko biztanleria-zifrak suspertzean, beraz, hiru herrialdeen ekarpenek eragin dute.

Arabian eta Bizkaian migrazio-sarreraren eta -irteeren arteko balantzea da biztanleria-aldakuntza zehazten duena; Gipuzkoan, aldiz, aldakuntza jaiotzen eta heriotzen arteko aldeak dakar 2004an.

5. Biztanleriaren aldakuntzaren pisu zehatza, lurralde historikoaren arabera (%).



Iturria: Eustat


Eustatek 1991n hasitako urteroko eguneratzeen serieen bilakaerari begiratuta, pixkanakako aldaketa nabari da Euskal A Eko biztanleriaren urte arteko aldakuntzan saldo begetatiboak eta migrazio-saldoak duten eraginean. 1999. urtea arte, goranzko hazkunde begetatibo negatiboak areagotu egin zuen osagai horrek biztanleriaren guztizko aldakuntzan (hori ere negatiboa) zuen pisua. Hala ere, 1976tik lehenengo aldiz, migrazio-saldo positiboa berreskuratu da 2000n eta horrek ahalbideratu du guztizko saldoa ere positiboa izatea. Euskal A Eko hazkunde demografikoa inmigrazioaren gehikuntzari dagokio batik bat. Hala ere, 2004an joera aldatu egiten da eta saldo begetatiboaren zeinu positiboa berreskuratzen da. Biztanleriaren urte arteko aldakuntzan %9 gehitzen da.

ESKUALDEETAKO BIZTANLEAK

Eskualde-mailara jaitsiz, hiriburuak barruan dituzten hiru eskualdeek gure erkidegoko biztanleria osoaren bi herenetik gora biltzen dute; hala nola, Arabako Lautadak Euskal A Eko biztanleriaren %11 hartzen du, Donostialdeak %15 eta Bilbo Handiak ia biztanleriaren erdia, %41.

Azkeneko errolda-berriztapenetik eguneratze honetara arte izan diren zentsu arteko hazkunde-tasek erakusten dutenez, gure erkidegoan dauden hogeitaz eskualdeetatik, hamahiruk tasa positiboak izan dituzte. Aipatzekoak dira, portaera positiboa izateagatik, Arabako Ibarrek, Gorbeia Inguruak eta Plentzia-Mungia, %2ren gainera dauden tasekin; kontrako aldean dago Deba Beherea eskualdea, %-1en azpitik dagoen tasarekin.


6. Errolda arteko hazkunde-tasa, eskualdea (%). 1996-2003



Iturria: Eustat

Azken eguneratzetik, biztanleak galdu dituzten eskualdeak lau besterik ez dira: Deba Beherea, Deba Garaia, Donostialdea eta Markina-Ondarroa. Denen artean 414 (0,1%) biztanle galdu dituzte. Gainerako eskualdeetan, gora egin du biztanle-kopuruak, eta guztira 10.347 pertsona irabazi dituzte, hau da, biztanleriaren %0,6.

7. Biztanleriaren aldakuntza-osagaien pisu zehatza, eskualdeen arabera (%). 2004



Iturria: Eustat

Biztanleriaren aldakuntzaren osagaien zeinuei dagokienez, biztanle-gehikuntzak izan dituzten eskualde guzti-guztiek migrazio-saldo positiboak izan dituzte, nahiz eta jaiotzen eta heriotzen arteko balantzea ez izan beti aldekoa, hala nola Arabako Ibarretan, Arabako Mendialdean, Arratia Nerbioin, Bilbo Handian, Enkartzazioetan, Errioxa Arabarrean eta Gernika-Bermeon. Bestalde, Markina-Ondarroa eskualdea izan ezik, biztanleak galdu dituzten gainerako guztiek migrazio-saldo negatiboak dituzte.

UDALERRIETAKO BIZTANLEAK


Euskal AE osatzen duten 250 udalerrietatik, 87k zentsu arteko hazkunde-tasa negatiboak izan dituzte, hau da, 1996ko maiatzaren 1eko errolda-berriztapenez geroztik, behera egin du udalerrri horietako biztanle-kopuruak, baten mantendu egin da kopuru hori eta 163tan gora egin du.

Udalerrriak ondorengo bost mailatan taldekatu ditugu:

1. udalerrri handiak: 100.000 biztanletik gora,
2. udalerrri ertainak: 40.001-100.000 biztanle,
3. udalerrri bitartekoak: 20.001-40.000 biztanle,
4. udalerrri bitartekoak: 10.001-20.000 biztanle,
5. udalerrri txikiak: 10.001 biztanletik behera.

20.000 biztanletik behera eta 100.000 biztanletik gora dituzten udalerriek biztanleria-gorakadak izan dituzte 1996ko maiatzaren 1eko azken errolda-berriztapenaz geroztik. Bestalde, biztanleria-beherapenak izan dira maila ertainean, hots, 20.001 eta 100.000 biztanle bitarte dituen mailan.

8. Errolda arteko hazkunde-tasa, udalerriaren tamainaren arabera (%). 1996-2004




Iturria: Eustat

Kopuru erlatiboetan, tamaina ertaineko udalerriak biltzen dituen mailak (40.001 eta 100.000 artekoek) izan du jaitsiera portzentajezko handiena, eta horiek izan dituzte zentsu arteko hazkunde-tasa negatibo nabarmenenak. Aitzitik, tamaina txikiagoko udalerriek izan dute, 100.000 biztanletik gorako mailan dauden hiru hiriburuekin batera, joera onena biztanleria-hazkundeari dagokionez.

Jarraian maila horietako bakoitza aztertuko dugu banan-banan. Hala ere, nabarmentzekoa da Euskal AEn 2004an biztanleria-kopuruan hazkunde absolutu handiena izan duten udalerriak Euskadiko hiru hiriburuak izan direla: Gasteizek 2.463 lagun gehiago izan ditu, Bilbok 1.394 lagun gehiago eta Donostiak 498 gehiago. Era berean, bitarteko mailetan nabarmenak izan dira 2003ko abenduko biztanleria-igoera: Durangoko (297), Mungiako (229) eta Leioako (203) udalerrietakoa hain zuzen ere.

9. Errolda arteko hazkunde-tasa, udalerriko (%). 1996-2004



Fuente: Eustat

Beste muturrean, 2004an biztanle-kopuruan jaitsiera absolutu handienak dituzten udalerrien artean, Portugalete (371 biztanle galdu ditu), Sestao (325 biztanleko galera), Eibar (194 pertsona gutxiago), Ondarroa (176 biztanle gutxiago) eta Errenteria (146 biztanle gutxiago) daude.

Aldakuntza erlatiboari dagokionez, urteko %1etik gorako gehikuntza duten hamar mila biztanle baino gehiago dituzten udalerrien artean honako hauek daude: Gernika-Lumo (%1,7), Pasaia (%1,6), Arrigorriaga (%1,4), Leioa (%1,3), Gasteiz (%1,3) eta Durango (%1,2). Aldiz, biztanle-kopuruaren urteko jaitsiera erlatibo handiena (%-0,5en gainerikoa) honako udalerrri hauek izan dute: Portugalete (%-0,8), Ermua (%-0,7), Arrasate (%-0,6), Eibar (%-0,6) eta Sestao (%-0,5).


Udal-biztanleriaren azken eguneratzetik hazkunde begetatibo handiena izan dutenak honakoak dira: Arabako hiriburua (+471), Gipuzkoako Irungo udalerrria (+139) eta Bizkaiko Leioa (+110). 2004an migrazio-saldo positiborik handiena duten udalerrriak, aldiz, Bilbo (+2.747), Gasteiz (+2.402) eta Irun (+445) dira.

Udallerri handiak

100.000 biztanletik gorako biztanleria duten hiru udallerriak hiru lurralde historikoetako hiriburuak dira, eta gure erkidegoko biztanleriaren guztizkoaren %36 biltzen dute. Zentsu arteko hazkunde-tasa positiboa da Donostian (%0,03) eta Gasteizen (%0,6); Bilbon, aldiz, negatiboa da (%-0,2).

Udal-biztanleriaren azken eguneratzeaz geroztik, udallerri-talde horren urteko aldakuntza osoa %0,6 da. Bilbon eta Gasteizen biztanle-kopurua igo egin da: 2.071 (%0,6) eta 2.873 (%1,3) biztanle hurrenez hurren. Donostian, aldiz, bilakaerak kontrako zeinua izan du: 2004an hango biztanleria 242 biztanletan gutxitu da, hau da, %0,1.

10. Biztanleriaren aldakuntza-osagaien pisu zehatza, udallerriaren arabera (> 10.000 bizt.) (%). 2004




Iturria: Eustat

2004an Bilbo eta Gasteiz izan dira biztanleak irabazi dituzten hiriburuak, eta migrazio-saldoari esker izan da. Donostian, aldiz, eragin handiagoa izan du hazkunde begetatiboak eta osagai negatibo biek berretsi egin dute biztanleria-galera.

Udallerri ertainak

Euskal AEn, 40.001 eta 100.000 biztanle bitarteko sei udallerri daude, eta gure erkidegoko biztanleria osoaren %18 hartzen dute. Honako hauek dituzte zentsu arteko hazkunde-tasa negatiboak: Barakaldok (%-0,6), Basaurik (%-0,8), Portugaletek (%-1) eta Santurtzik (%-0,6). Hazkunde positiboa izan dute Bizkaian Getxok (%0,2) eta Gipuzkoan Irunek (%0,8).

11. Biztanleriaren aldakuntza-osagaien pisu zehatza, udalerriaren arabera (40.001-100.000 bizt.) (%).2004



Iturria: Eustat

Aldakuntza berrienari dagokionez, maila horretako udalerri-multzook 420 biztanle gehiago irabazi ditu eta %-0,1eko urteko aldakuntza-erritmo globala izan du.

Talde hori osatzen duten udalerri guztietan, aldakuntza, batik bat, migrazio-saldoak eragin du.

Bitarteko udalerriak

20.001 eta 40.000 biztanle bitarteko bederatzu udalerriek erkidegoko biztanleria osoaren %12 hartzen dute. Honako hauek zentsu arteko hazkunde-tasa positiboak lortu dituzte: Durangok (%1,2), Leioak (%1,2) eta Zarautzek (%1,5).

12. Biztanleriaren aldakuntza-osagaien pisu zehatza, udalerriaren arabera (20.001-40.000 bizt.) (%). 2004


Iturria: Eustat

Udalerri horiek berek, eta Erandiok nahiz Galdakaok, gehikuntzak izan dituzte biztanle-kopuruetan, azken eguneratsetik. Aldiz, Arrasatek, Eibarrek, Errenteriak eta Sestaok biztanle-galera absolutuak izan dituzte, eta aipatzekoa da Sestao, udalerri horretan izan delako jaitsiera erlatiborik handiena, %1en gainetikoa. Udalerri horietan urteko %0,2ko baterako aldakuntza dute. Taldea eratzen duten


udalerrri erdietan baino gehiagotan, aldakuntza migrazio-saldoak eragin du batik bat. Aldiz, Eibarren, Zarautzen eta Leioan hazkunde begetatiboaren eta migrazio-saldoaren pisua orekatu egin da. Aurkakoa gertatu da Galdakaon, aldakuntza osoa hazkunde begetatiboaren eraginez lortu baita.

Euskal Aeko biztanleriaren %15 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko 22 udalerritan bizi da. Aipatzekoa da Pasaia, %-1,3ren azpitik dagoen zentsu arteko hazkunde-tasa negatiboa izan duelako. Aitzitik, %1en gainetik dauden tasa positiboak izan dituzte Sopelak (%2,4), Arrigorriagak (%1,8), Mungiak (%1,4) eta Hondarribiak (%1).

Udalerrien kategoria horrek guztira 1.461 biztanle irabazi ditu eta ondorioz, urteko aldakuntza bateratua %0,4koa da. Hamaika udalerririk gehitu dute biztanleria maila horretan, eta 1.714 biztanleko igora lortu dute, hau da, euren biztanleriaren %0,7. Kopuru horretan jaitsierak dituzten hamaika udalerriek, aldiz, 252 biztanle galdu ditu, hau da, biztanleriaren %0,4.

Maila horretan sartzen diren udalerrri gehienetan, biztanleria-aldakuntza migrazio-saldoak eragin du. Ez da hala gertatu Hernanin, Laudion, Zumarragan eta Trapagaranen, udalerrri horietan hazkunde begetatiboak pisu handiagoa baitu biztanleria-aldakuntzan.

13. Biztanleriaren aldakuntza-osagaien pisu zehatza, udalerrriaren arabera(10.001-20.000 inhabs.) (%). 2004



Udallerri txikiak

Azkenik, 10.001 biztanletik beherako beste 210 udalerriek Euskal AEko biztanleria osoaren %19,5 inguru biltzen dute. Horietatik, 142k zentsu arteko hazkunde-tasa positiboak izan dituzte eta 68k, berriz, negatiboak. Mila biztanletik gorako udalerrien artean, %3tik gorako tasekin, berriz, beste hauek nabarmendu dira: Dulantzi (%5,6), Zuia (%5,3) eta Okondo (%3,1) Araban; Irura (%4,7) Gipuzkoan; eta Loiu (%3,9), Bakio (%3,8) eta Gorniz (%3,7) Bizkaian.

10.000 biztanletik beherako udalerrien taldeak 3.116 biztanle gehiago ditu, hau da, urteko aldakuntza positiborik handiena du, %0,8koa hain zuzen ere. Talde horretan, biztanle-kopurua gehitu dutenek 3.678 biztanleko igoera lortu dute, hau da, biztanleriaren %1,1; biztanleak galdu dituztenek, aldiz, 562 biztanle galdu dituzte, hau da, hasierako biztanle-kopuruaren %0,7.

Eustatek osatu dituen aurreko biztanleriaren eguneratze-lan guztietan, maila horretako biztanle-galerak pixkanaka gutxituz joan dira; 1995ean, hain zuzen, aldatu egin da urteko aldakuntzaren zeinua, eta hurrengo urteetan sendetsi egin da joera hori.

Udallerri horien artean, bostetik lautan, migrazio-saldoari dagokio biztanleriaren aldakuntza. Gainerakoetan, berriz, biztanle-kopuruaren aldakuntzak hazkunde begetatiboek eragin dituzte.